

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

69/2019 Foru Agindua, otsailaren 8koa, onesten duena barne sustapenerako deialdia Arabako Foru Aldundiaren karrerako funtzionario diren administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko itzultzaileen A taldeko A2 azpitaldeko erdi mailako teknikarientzat, honakoan sartzeko: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, betebeharrak berezien klasea, itzultzaile lanpostua, A taldea, A1 azpitaldea (A)

Abenduaren 21eko 69/2018 Foru Dekretuak Giza Baliabideen Arrazionalizazio plana onetsi zuen.

Plan horren helburuen artean dago A taldeko A2 azpitaldeko itzultzaileen barne sustapena egitea A taldeko A1 azpitaldean sartzeko.

Prozesu hori egin ahal izateko, deialdia arautuko duten oinarriak argitaratu behar dira.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Abenduaren 21eko 69/2018 Foru Dekretuak xedatutakoari jarraituz, barne sustapenerako hautaketa prozesurako deialdia egitea Arabako Foru Aldundiaren karrerako funtzionario diren karrerako funtzionario diren administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko itzultzaileen A taldeko A2 azpitaldeko erdi mailako teknikarientzat, honakoan sartzeko: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, betebeharrak berezien klasea, itzulpena, A taldea, A1 azpitaldea (A).

Bigarrena. Onestea deialdiaren oinarriak, gai zerrenda eta parte hartzeko eskaera orria (I., II. eta III. eranskinak).

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik -azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta-.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 8a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR



I. ERANSKINA

BARNE SUSTAPENERAKO DEIALDIAREN OINARRIAK ARABAKO FORU ALDUNDIAREN KARRERAKO FUNTZIONARIO DIREN ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOKO ITZULTZAILEEN A TALDEKO A2 AZPITALDEKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIENTZAT, HONAKOAN SARTZEKO: ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA, BETEBEHAR BEREZIEN KLASEA, ITZULTZAILE LANPOSTUA, A TALDEA, A1 AZPITALDEA (A).

LEHENENGOA. - DEIALDIAREN HELBURUA.

Deialdi honen helburua da plaza 1 (bat) betetzea, hain zuzen, honakoa: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, betebegar berezien klasea, itzultzaile lanpostua, A taldea, A1 azpitaldea (A)

BIGARRENA. - PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK

Deialdi honetan Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioek parte hartu ahal izango dute, Giza Baliabideen Arrazionalizazio Plana onesten den egunean euren funtzionario izendapenaren arabera honako ezagugarriak dituen lanpostuan badaude: administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoak, erdi mailako teknikarien klasea, itzultzaile lanpostua, A taldea, A2 azpitaldea.

1. Langile horiek zerbitzu aktiboko, zerbitzu berezietako edo lanpostua gordeta izateko eskubidea ematen duen eszedentzia egoeran egon behar dute honako lanpostuan: administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoak, erdi mailako teknikarien klasea, itzultzaile lanpostua, A taldea, A2 azpitaldea.
2. Honako titulazio hauetako bat eduki behar dute edo hura jaulkitzeko tasak ordainduta izan deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunean: doktore, lizentziadun, gradu, ingeniari edo arkitekto titulua edo baliokideak. Atzerrian lortutako tituluak izatekotan, horien homologazioa frogatzen duen egiaztatzea eduki beharko da.
3. Egiaztatzea gutxienez bi urtez aritu dela honetan: administrazio berezia, azpieskala teknikoak, erdi mailako teknikaria, itzultzaile lanpostua, A taldea, A2 azpitaldea.
4. 4TP hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea.

HIRUGARRENA. - KOMUNIKAZIOAK ETA JAKINARAZPENAK.

Prozedura honek sortzen dituen komunikazio eta jakinarazpenak Gurenetan (Funtzio publikoak- Informazio orokorra atala) argitaratuko dira.

LAUGARRENA.- ESKAERAK AURKEZTEA.



Deialdi honetan parte hartzeko eskaerak deialdiaren eranskinean dagoen eredu normalizatuan egingo dira eta deialdi hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita 10 eguneko epean aurkeztuko dira honako lekuetan: Arabako Foru Aldundiaren Herritarrak Atenditzeko Atalean (Probintzia plaza 5, beheko solairua, 01001 Gasteiz) edo administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aipatzen dituen bulegoetatik edozeinetan.

Hautaprobetarako onartuak izateko eta haietan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskaeraren atal guztiak bete beharko dituzte. Horrez gain, adierazi beharko dute eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, eskaera aurkezteko ezarri den epea amaitzen den egunean betiere.

Hautaketa prozesuan parte hartzen dutenek berriazko baimena ematen dute, kontrakoa adierazi ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta xederako tratatzeko.

BOSGARRENA. - ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDA

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, Arabako Foru Aldundiaren Gurenetan (**Funtzio publikoa-Infomazio orokorra atala**) onartuen eta baztertuen zerrenda argitaratuko da –baztertze arrazoien azalpenarekin batera, baztertuen kasuan–, eta hurrengo egunetik hasita 3 egun baliouduneko epea egongo da erreklamazioak jartzeko. Epe hori igaro eta erreklamazioak ebatzita -horrelakorik egonez gero-, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara emango da.

SEIGARRENA. - BALORAZIO BATZORDEA.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak izendatutako Balorazio Batzorde batek egingo du hautaketa prozesuaren balorazioa. Onartuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da batzordearen osaera. Batzordeko kideen egokitasuna eta kualifikazioa, eta emakumeen eta gizonen arteko oreka bermatuko dira.

Batzordeburuak, idazkariak eta hiru batzordekideak osatuko dute batzordea.

Balorazio Batzordeko kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

Balorazio Batzordeak ebatziko ditu arau hauek aplikatzerakoan sor litezkeen zalantza guztiak, bai eta aurreikusi gabeko kasuetan zer egin behar den ere.

Boto berdinketarik gertatuz gero, batzordeburuak izango du kalitate botoa.

Balorazio Batzordea ezin izango da osatu eta ezin izango du jardun, gutxienez hiru kide bertan ez badaude, titularrak zein ordezkioak, eta gainera, batzordeburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute nahitaez.

Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 19. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero, Balorazio Batzordeko kideek ezingo dute lan horretan jardun, eta deialdia egin duen agintaritzari horren berri eman beharko diote. Gainera, izangaiek kideak errefusatu ahal izango dituzte.



Hautaketa prozesuko edozein unetan Balorazio Batzordeak jakiten badu izangairen batek ez duela betetzen deialdian ezarritako betekizunen bat edo gehiago, betiere interesdunari entzun ondoren, izangai hori baztertu dezala proposatu beharko dio organo eskudunari, izangaiak eskaeran azaldutako oker edo faltsukeriak adieraziz.

Jarduteko prozedura Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 19. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakora lotuko da beti.

Balorazio Batzordeak adituak izendatu ahal izango ditu; aditu horiek aholkulari moduan arituko dira beren espezialitateko gaietan, hitzarekin baina botorik gabe.

ZAZPIGARRENA. -HAUTAKETA PROZESUAREN NONDIK NORAKOA

Bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak.

Lehenengo ariketa

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendako edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderak osatuko dute galdetegia.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: puntuazioa berdin erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena ($P = Z - O/3$). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, **gutxieneko bost (5) puntuko** azken puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila.

Kanporatuta geratuko dira bi probetan lortutako puntuazioak baturik bost (5) puntutara heltzen ez diren izangaiak.

Epaimahaiak gutxieneko bost (5) puntuko azkeneko puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila ezarri eta gero, zuzeneko puntuazioak azken puntuazio bihurtuko dira, proportziorako banaketa baten arabera, halako moduan non hamar (10) puntuko azken puntuazioa bat datorren gehienez ere lor daitekeen zuzeneko puntuazioarekin. Eragiketa hauek guztiak izangaiak nortzuk diren jakin gabe egingo dira.

Bigarren ariketa

Kasu praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, honekin batera doan gai zerrendarekin lotuak, hark erabakitzen duen gehieneko denboran.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik **hamasei (16) puntura** kalifikatuko da, eta zortzi (8) puntuko kalifikaziora heltzen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

**ZORTZIGARRENA.- GAINDITU DUTENEN ETA HAUTATUTAKO LANGILEEN ZERRENDA. LANPOSTUAK HAUTATZEA ETA ESLEITZEA**

Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa egin ondoren, Balorazio Batzordeak gainditu dutenen zerrenda egingo du, kalifikazioei jarraituz.

Adierazitako zerrenda egin ondoren, Balorazio Batzordeak gainditu duten izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du Gureneten (**Funtzio Publikoa-Informazio Orokorra** atalean)

Gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek hamar egun baliodun (10) izango dituzte egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, Balorazio Batzordeak gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratzeko agindua emango du.

Hautatuen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek ebatzi ondoren, Balorazio Batzordeak gainditu dutenen behin betiko zerrenda egingo du eta Foru Aldundiaren organo eskudunari helaraziko dio administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, betebeharrak berezien klasea, itzultzaile lanpostua, A taldea, A1 azpitaldean (A) karrerako funtzionario izendatzeko kasuan kasuko proposamenak egiteko.

BEDERATZIGARRENA.- AGIRIAK AURKEZTEA.

Proba gainditu eta izendatuak izateko proposatzen diren izangaiak, behin betiko kalifikazioak argitaratu ondorengo egunean hasi eta gehienez hamabost egun naturaleko epean, jatorrizko agiriak aurkeztu beharko dituzte bigarren oinarrian ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela frogatzeko, ez badituzte euren espediente pertsonalean jasorik agiri horiek edo berorien kopia konpultsatua.

Baldin eta adierazi den epean, ezinbesteko kasuak alde batera utzita, proposatutako izangaiak esandako agiriak aurkezten ez baditu, edo eskatzen diren baldintzak betetzen dituela frogatzen ez badu, ez zaio izendapenik egingo eta haren jarduketa guztiak deuseztatu egingo dira, erantzukizuna egozteaz baxtertu gabe.

Agiriak aurkezten ez badira edo hautatuen batek lanpostuaz jabetzera aurkezten ez bada, Balorazio Batzordeak beste proposamen bat egingo du karrerako funtzionarioak izendatzeko.

HAMARGARRENA.- IZENDAPENA ETA LANPOSTUAZ JABETZEA.

Agiriak aurkezteko epea bukatu ondoren, proposatu diren izangaiak karrerako funtzionarioak izendatuko dira administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, betebeharrak berezien klasea, itzultzaile lanpostua, A taldea, A1 azpitaldean (A), Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez. Foru agindu hori Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Izendapena egin eta hurrengo egunetik hasita, izendatutako izangaiak 30 egun balioduneko epea izango du bere lanpostuaz jabetzeko.



HAMAİKAGARRENA.- GORABEHERAK.

Oinarri hauetan ezarri ez diren gaiei dagokienez, Balorazio Batzordeak ahalmena izango du egon daitezkeen zalantzak erabakitzeko eta hautaketa prozesua zuzen burutzeko behar diren erabakiak hartzeko.

HAMABIGARRENA. - AURKARATZEAK.

Interesdunek aurka egin ahal izango diete oinarri hauei, deialdiari eta deialditik nahiz epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio egintzei, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako kasu eta moduetan.



II. ERANSKINA

GAI ZERRENDA

Euskararen akademia. Arauak

1. gaia - Euskaltzaindiaren 1. araua. Bat-batean, behinik behin, batik bat (*) (Idazkera eta morfologia)
2. gaia - Euskaltzaindiaren 2. araua. Baitu, baikara, bainaiz (Idazkera eta morfologia)
3. gaia - Euskaltzaindiaren 3. araua. Aurrealde eta aurreko alde (Idazkera eta morfologia)
4. gaia - Euskaltzaindiaren 4. araua. Hau gu(z)tia (Sintaxia)
5. gaia - Euskaltzaindiaren 5. araua. Ene/nire, nirekin, niri (Idazkera eta morfologia)
6. gaia - Euskaltzaindiaren 7. araua eta 8. araua. Zenbakien idazkeraz; zenbakien deklinabidez (Idazkera eta morfologia)
7. gaia - Euskaltzaindiaren 10. araua. Nornahi, nonahi, non-nahi (Idazkera eta morfologia)
8. gaia - Euskaltzaindiaren 11. araua eta 12. araua. Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk; *bat eta batzuk*-en deklinabidea (Idazkera eta morfologia)
9. gaia - Euskaltzaindiaren 15. araua. Partitiboaren erabilera okerra (Sintaxia)
10. gaia - Euskaltzaindiaren 16. araua. Zu izan ezik (Sintaxia)
11. gaia - Euskaltzaindiaren 18. araua. Ordinalen eta banatzaileen idazkera (Idazkera eta morfologia)
12. gaia - Euskaltzaindiaren 19. araua eta 20. araua. Benetako, ohiko; betiko eta horren kideak (Idazkera eta morfologia)
13. gaia - Euskaltzaindiaren 23. araua eta 43. araua. Arazi (Sintaxia); arazi aditzaren erregimena (Sintaxia)
14. gaia - Euskaltzaindiaren 24. araua. Ba- eta gabe-ren (Idazkera eta morfologia)
15. gaia - Euskaltzaindiaren 25. araua. Hitz elkartuen osaera eta idazkera (Idazkera eta morfologia)
16. gaia - Euskaltzaindiaren 26. araua. Hori eta, hori edo, eta antzekoen idazkera (Sintaxia eta morfologia)
17. gaia - Euskaltzaindiaren 29. araua. Diptongoz bukatzen diren izenen idazkera (Sintaxia eta morfologia)
18. gaia - Euskaltzaindiaren 30. araua. Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola (Sintaxia)
19. gaia - Euskaltzaindiaren 31. araua. Ekartzea merezi du (Sintaxia)



20. gaia - Euskaltzaindiaren 34. araua. Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia (Sintaxia)
21. gaia - Euskaltzaindiaren 39. araua. Zenbait aditzen erregimena (gonbidatu, iguriki, itxoin, itxaron, deitu, lagundu) (Sintaxia)
22. gaia - Euskaltzaindiaren 40. araua eta 41. araua. Topiko(a) bihurtu. Egiteko asmoz (Sintaxia)
23. gaia - Euskaltzaindiaren 42. araua. Lehenago etorriko zen; lehenago asmatuko zuen (Sintaxia)
24. gaia - Euskaltzaindiaren 49. araua eta 50. araua. –ARI (-lari) atzizkiaz; –ARI/-ARIO (Idazkera eta morfologia)
25. gaia - Euskaltzaindiaren 57. araua. Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak (Onomastika)
26. gaia - Euskaltzaindiaren 73. araua. –go atzizkia eta izen multzokariak (Idazkera eta morfologia)
27. gaia - Euskaltzaindiaren 109. araua. Komuntadura aposizioetan (Sintaxia)
28. gaia - Euskaltzaindiaren 110. araua. Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen (Sintaxia)
29. gaia - Euskaltzaindiaren 111. araua. Izen sintagmen arteko juntadura dela eta (Sintaxia)
30. gaia - Euskaltzaindiaren 113. araua. Behar izan aditzaren jokabidea aditz iragangaitzekin (Sintaxia)
31. gaia - Euskaltzaindiaren 115. araua. Zehar galdera orokorretako aditz-atzizkia: -(e)n eta -(e)nentz (Idazkera eta morfologia); eta Euskaltzaindiaren 116. araua. -eLAKO eta -eN atzizkiak izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan (Sintaxia)
32. gaia - Euskaltzaindiaren 141. araua. Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoaren erabilera (Onomastika)
33. gaia - Euskaltzaindiaren 150. araua. Arabako herri izendegia (Onomastika)

Ortotipografia

34. gaia – Letrakera arrunta, letrakera etzana, letrakera lodia
35. gaia - Kakotxak
36. gaia – Oinarrizko adieraz besteko izen berezien deklinabidea
37. gaia – Erdal izen bereziak
38. gaia – Siglak eta laburdurak eta neurri izenak
39. gaia – Barra eta marratxoa



40. gaia- Bibliografia nola aipatu

Testugintza

41. gaia - Modalizazioa

42. gaia – Itzulpen prozedurak (transferentzia edo mailegua, sinonimia, kalkoa)

43. gaia - Itzulpen prozedurak (hitzez hitzekoa, transposizioa, modulazioa)

44. gaia - Itzulpen prozedurak (baliokidetasuna, egokitzapena, zabalkuntza)

45. gaia – Itzulpen prozedurak (azalpena, ezabapena, konpentsazioa)

Arautegia

46. gaia – 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera arautzekoa (aurrerantzean “10/1982 Euskararen Legea). Zioen adierazpena eta atariko titulua

47. gaia - 10/1982 Euskararen Legea. Lehenengo titulua. Herritarren eskubideak eta herri aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean.

48. gaia - 10/1982 Euskararen Legea. Bigarren titulua. Herri aginteen jarduera. Lehenengo kapitulua. Euskararen erabilera herri Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lur eremuan.

49. gaia - 10/1982 Euskararen Legea. Bigarren titulua. Herri aginteen jarduera. Laugarren kapitulua. Euskararen gizarte erabilera eta erakundeen alorreko beste zenbait alderdi.

50. gaia - 10/1982 Euskararen Legea. Bigarren titulua. Herri aginteen jarduera. Bosgarren kapitulua. Euskararen erabilera hizkuntza idatzi ofizial gisa.

51. gaia – 10/1998 Foru Araua, martxoaren 31koa, Arabako foru administrazioan eta lurralde historikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa. Lehenengo kapitulua. Xedapen orokorrak.

52. gaia - 10/1998 Foru Araua, martxoaren 31koa, Arabako foru administrazioan eta lurralde historikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa. Bigarren kapitulua. Euskararen erabilera Arabako foru administrazioaren barne funtzionamenduan. Hizkuntza eskubideak bermatzea.

53. gaia - 10/1998 Foru Araua, martxoaren 31koa, Arabako foru administrazioan eta lurralde historikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa. Hirugarren kapitulua. Arabako lurralde historikoan euskararen erabilera bultzatzea eta normalizatzea.

Espainiako Errege Akademia

54. gaia – Real Academia Española. Espainieraren ortografia. II. eta III. kapituluak

55. gaia - Real Academia Española. Espainieraren ortografia. IV. eta V. kapituluak

56. gaia - Real Academia Española. Espainieraren ortografia. VI. kapitulua

57. gaia - Real Academia Española. Espainieraren ortografia. VII. Kapitulua



58. gaia -- Real Academia Española. Diccionario de la lengua española. Fundamentos y advertencias básicas de uso.

Euskal Itzulpen Zerbitzuak eta ikasketak

59. gaia- IVAP. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea. Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala. Zerbitzuak eta loturak. Legeria euskaraz. Administrazioa Euskaraz aldizkaria. Zalantzak argitzeko zerbitzua: Duda-muda.

60. gaia- EIZIE. Euskal Itzultzaile eta Interpreteen Elkartea. Zerbitzua, tresnak eta argitalpenak. Senez aldizkaria. Itzul posta zerrenda.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru
Administrazioaren Saila
Departamento de Fomento del Empleo, Comercio y
Turismo y de Administración Foral

Funtzio Publikoko Zuzendaritza
Dirección de Función Pública

III. ERANSKINA ANEXO III

...BARNE SUSTAPENA/ ONARTUA IZATEKO ESKAERA PROMOCIÓN INTERNA / SOLICITUD DE ADMISIÓN

DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

NAN / D.N.I
 Izena / Nombre
 Abizenak / Apellidos
 Helbidea / Domicilio
 Herria / Población Probintzia / Provincia PK / C.P.
 Tel. Posta elektronikoa / Correo electrónico
 Ezinduen oharrak / Observaciones discapacitados

ESKATUTAKO PLAZA/PLAZA SOLICITADA

.....

BEHEAN SINATZEN DUENAK

LA/EL ABAJO FIRMANTE

ESKATZEN DU:
 ADIERAZTEN DU: eskaera orri honetan emandako datu guztiak egiazkoak
 direla eta deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

SOLICITA: Ser admitido/a la convocatoria.
 DECLARA: Que son ciertos todos los datos consignados en esta instancia y
 que reúne todas las condiciones exigidas en las bases de la convocatoria.

....., 20 -
 Sinadura / Firma

Egiaztasuneko helbidea: Dirección de comprobación
<https://e-saraba.eus/wps/portal/ConsultaCove>

Zurtagiriaren zk. Código de Verificación
 CJB-HBd2-UJLI-rUVn



GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUA. FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA. ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
 ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA
 SERVICIO DE RECURSOS HUMANOS. DIRECCIÓN DE FUNCIÓN PÚBLICA. DEPARTAMENTO DE FOMENTO DEL EMPLEO, COMERCIO Y TURISMO Y DE ADMINISTRACIÓN
 FORAL
 Probintzia plaza 14-3. / Plaza de la Provincia 14-3º - 01001 Vitoria-Gasteiz